

## ZUBIAREN JOKOA

NUN ? Leku zabal batean.

KANTUA? *Pasa zaite , pasa zaite,  
Zubi honen azpitik,  
Pasa zaite, pasa zaite,  
Gero hetsiko da.....gako.*

TALDEA? Edozoin haur kopurua.

JOKOA : Haurrak lerro luze bat osatzen dute , bat besteari eskuak emanik.

Denbora berean, aintzinetik hautatuak izan diren beste bi haur, eskuak gorak eta lotuak, zubia egiten dute. Bakoitzak segeteruki abere azkar baten izena hautatu behar du, zubian preso egonen denari proposamen bat egiteko (adibidez: batek zezena, besteak leoia).

- Denek kantatzen dute; lerroa zubiaren azpitik pasatzen da; kantuaren bukaeran: "gako"

erraiten delarik, zubia hesten da eta haur bat barnean egoiten da.

- Orduan, lerrokoak urruntzen dira, eta zubikoek harrapatua izan den haurrari proposatzen diote:- "Zer duzu nahi, leoiarekin edo zezenarekin ibili ?"

Besteak ihardetsi: -"Leoiarekin"

Eta Leoiak : -" Zatoz nerekin: gibelerat", (Leioaren gerria atxikiz)

- Jokoa berriz hasten da, eta irauten da ,haur bakotzak bere hautua egin eta lerroa desagertu arte.

- Azkenean, bi talde dira: leoiak eta zezenak. Denak gerritik atxikitzen dira.Talde bakoitzak bere alderat tiratzen du: erortzen den taldea galdu du.